



Arartekoaren 2023IR-1011-23 EBAZPENA, 2023ko abenduaren 14koa. Horren bidez, bere jarduketa bukatzen da COVITEk (terrorismoaren biktimen elkartea) aurkeztutako kexan. Bertan, salatu zuen ETako kideak ETaren biktimekin batera agertzen zirela Galdakaoko Udalak gertuko memoriaren inguruan sortu duen "Galdakao Oroimena" webgunean.

Aurrekariak

1. 2023ko apirilaren 12an Arartekoak (COVITE) terrorismoaren biktimen elkartearen idazkia jaso zuen. Elkarte horrek EAEko terrorismoaren 500 biktima baino gehiago ordezkatzeko ditu. Idazki horretan, COVITEk Arartekoari eskatu zion Galdakaoko Udalari eskatzeko "Galdakao Oroimena" webgunetik ETako kideen izenak kendu zitzala. Elkarte horren arabera, ETako kideak giza eskubideen urratze larrien biktima gisa agertzen ziren ETaren jarduera terroristaren benetako biktimekin batera.

2. Geroago, COVITEk Arartekoari jakinarazi zion tankera bereko webguneak zeudela Euskadiko beste udalerrri batzuetan.

3. 2023ko apirilaren 22an Arartekoak egiaztatu zuen ez zegoela eskuragarri ez Galdakaoko Udalaren "Galdakao Oroimena" webguneko eduki eztabaidatua -COVITEk salatu zuena- ezta ere kexan aipatutako beste webgune batzuetako edukia. Webgune horiek, beraz, desgaituta zeuden. Hala ere, webgune batzuek memoria historikoaren atala mantendu dute, baina gerra zibilean eta ondorengo diktadura frankistan gertatutako giza eskubideen urratzeak azaltzen dituzte, eta erakunde honetan ez da horren inguruko kexarik jarri.

4. Bere jarduketan esparruan, Arartekoak egiaztatu du ez dagoela webgune horiek berriz ere gaitzeko aurreikuspenik, eta horrenbestez, COVITEk aurkeztutako kexa, hasiera batean, indargabetu egin da. Hala ere, Arartekoak kexaren hizpide den gaiarekin lotutako hainbat jarduketa egitea erabaki zuen, eta kezka handiz jarraitu zituen askotariko berrietan eta komunikabideetan gertuko memoriaren inguruko adierazpen publiko eta politikoetan azaldutako irismena eta ondorioak, EAEn indarkeriaz bititako hamarkaden osteko elkarbizitzan izan lezaketaren eraginengatik.

5. Gertatutakoak EAEko bizikidetzan izan litzakeen ondorioengatik kezka horregatik, eta indarkeria iraganaren inguruko memoria komuna sortzeko, Arartekoak hainbat bilera egin zituen gatazka publiko horretan nahasitako erakundeekin. Lehenik eta behin, Arartekoa COVITE elkarteko ordezkariekin bildu zen, terrorismoaren biktimengana hurbildu eta zuzenean ezagutzeko memoriaren webguneetan gertatutakoarengatik sentitzen zuten umiliazioa eta iraina. Arartekoak COVITEko ordezkariari esan zien EAEko terrorismoaren biktimekiko duen



konpromisoa etengabea dela, eta beraien duintasuna eta memoria kolektiboan egiten duten ekarpena defendatzen dituela.

6. Halaber, Arartekoak erabaki zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko ordezkariekin biltzea. Izan ere, elkarte horrek webgune eztabaidagarri horiek egiten lagundu zuen, eta Arartekoak hobeto ulertu nahi zituen gertuko memoriaren gaineko webgune horiek prestatzeko oinarritzat hartu ziren alderdi tekniko eta historiografikoak, baita elkarbizitzarako tokiko prozesu parte-hartzaileak ere (elkarbizitza mahaiak). Aranzadiko ordezkariak Arartekoari azaldu zioten zein izan zen arlo horretako hainbat legelari aditurekin egon ostean webgune horiek sortzeko erabili zituzten giza eskubideen urratzeen sailkapen teknikoak. Azaldu zuten baita ere sailkapen hori EAEn une honetan bakarra dela, eta Gipuzkoako Foru Aldundian Giza Eskubideen Zuzendaritzak sustatzen duela (*"Indarkeria politikoko kasuei buruzko informazioa biltzeko datu-base baten egitura eta diseinu metodologikoa"*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014).

Aranzadiko ordezkariekin izandako bileretan, Arartekoari une oro adierazi zioten terrorismoaren biktimekiko elkartasun eta hurbiltasuna, eta esan zuten biktimekin 10 urte daramatzatela lanean webguneak dokumentatzeko datuak biltzen, eta sekula ere ez zutela inolako arazorik edo polemikarik izan. Hala ere, Aranzadiko ordezkariak aitortu eta deitoratu egin zuten terrorismoaren biktimak umiliatuta eta irainduta sentitu izana, ETAko biktimarioak gertuko memoriaren webguneetan biktima gisa agertzen zirelako. Aranzadi elkarteak berehala adierazi zuen webgune horiek aldatzeko prest zegoela, terrorismoaren biktimek webgune horiek horrela argitaratu zirelako irainduta sentitu zirela azaldu zutenean. Era berean, webguneen alderdi teknikoak lasai eztabaidatzeko prest agertu ziren. Hala eta guztiz ere, Arartekoak eskatutako azalpen tekniko eta historiografikoak emateaz gain, Aranzadiko ordezkariak esan zuten pertsonalki eta profesionalki minduta zeudela aipatutako memoriaren webguneen polemikak bertako historialari eta langileengan sortutako ondorioengatik, horiek guztiek giza eskubideak babestearekin duten konpromisoa une oro ukazina izan baita. Beste alde batetik, deitoratu zuten polemika horrek Aranzadi elkarte zientifikoaren izen ona zalantzan jarri izana, zeren eta elkartearen ibilbide entzutetsua beti egon baita interes politiko eta ideologikoengandik aldentuta.

Beste alde batetik, Arartekoko bitartekariak berretsi zuten Aranzadi elkarte beti egon dela EAeko bakearen eta bizikidetzaren alde. Konpromiso hori betez, elkarte horrek udalen agindua onartu zuen, hau da, memoriaren gaineko webguneetan jartzeko 2011tik aurrera EAeko hainbat herritan bizilagunen partaidetza handi eta anitzarekin martxan jarri ziren elkarbizitza mahaietan sortutako adostasunak (Galdakaon, hala ere, ez zegoen horrelako mahairik). Elkarbizitza mahai horietan bakearen aldeko dinamika positiboak sortu ziren, eta Aranzadik azaldu zuen gertuko memoriaren webguneen aurrekari zuzena eta arrazoia mahai horiek direla. Webguneen inguruko polemikaren ondoren, webgune horiek desagertu egin ziren edo etenda geratu ziren.



Azkenik, Aranzadiko ordezkariak Arartekoari esan zioten elkarte zientifikoan gertatuaren inguruko hausnarketa teknikoa egiten ari zirela, eta ez zutela aurreikusita eztabaidatutako webgune horiek etorkizunean berriro ere aktibatzea.

7. Bukatzeko, Arartekoak informazioa eskatu zion baita ere Galdakaoko Udalari. Alkateak informazio hau bidali zuen Arartekora, bere gertakarien ikuspuntua dokumentatzen duten txosten, idazki eta mezu elektronikoen bidez:

Galdakaoko alkateak esan zuen bere asmoa izan zela 1936tik gaur egunera arte (*memoria historikoa* eta *gertuko memoria*, Gogora Institutuaren sailkapenaren arabera) arrazoi politikoengatik gertatu ziren giza eskubideen urratzeak dokumentatzea, eta erabaki politiko horren arrazoi nagusia izan zela herriaren irudirik ahalik eta objektiboena ateratzea. Horretarako, lizitazio ireki bat egin zen, eta Aranzadi elkarteak lehiaketa irabazi eta gero, 2021ean kontratua sinatu zuten eta urte bereko ekainaren 16an proiektua aurkeztu zuten Galdakaoko udal talde politiko guztiei. Azaldu zuen baita ere, bilera horretara gutxienez udal alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat joan zela. 2021eko ekainaren 23an udal taldeek agerraldi publiko bat egin zuten Aranzadiko ordezkariekin batera, eta proiektua babestu zuten. Alkateak ondoren azaldu zuen Aranzadik "*Oroimen bulegoa*" ireki zuela Galdakaoko Torrezabal kultur etxean urrian, webguneko datu basea dokumentatzeko testigantzak jasotze aldera. Alkateak esan zuen udalaren eta Aranzadiren asmoa izan zela Galdakaon indarkeria urteetan pairatutako giza eskubideen urratzeen eta gainerako sufrimenduen testigantzak jasotzea, eta indarkeriak sortutako giza min askotarikoa eta sakona ikusaraztea, horrela, herrian elkarbizitza sustatzeko.

Alkateak adierazi zuen, halaber, 2023ko urtarrilaren 23an udaleko talde politikoei Aranzadiren lana aurkeztu zitzaizela, eta horiek proposatutako metodologia zientifikoaren eta biktimizazio kategorien aldeko iritzia eman zutela. 2023ko otsailaren 2an [Aranzadiren lana jendaurrean aurkeztu zen](#), eta aurkezpen horretan egon ziren alderdi politiko guztietako ordezkariak, Euskadiko Alderdi Sozialistakoak izan ezik (aurrerantzean, PSE-EE). Udalak esan zuen lan horretan galdakaotarren 503 kasu zeudela dokumentatuta, eta Eusko Alderdi Jeltzaleko, Herri Batasunako edo PSE-EEko alkateen eta zinegotzi ohien testigantza bideoak zeudela besteak beste.

Galdakaoko alkateak kontatu zuen 2023ko martxoaren 7an PSE-EEko bozeramailearen mezu elektronikoa jaso zuela (alkateari eta gainerako udal bozeramaileei bidali zien), eta bertan zenbait kezka eta galdera azaldu zituzten aipatutako webgunearen inguruan (eta bertan ETako kideak agertzearekin lotuta). Orduantxe Aranzadirekin harremanetan jarri zen, elkarte horrek azaldu zituzten, hasiera batean, zalantza haiek. Aranzadik eta alkateak PSE-EEri emandako erantzunetan azaldu zituzten "*Galdakao Oroimena*" webguneko *Bortizkeria politikotik eratorritako beste gertakari batzuk* kategorian ETako kideak sartu izanaren arrazoi teknikoak. Ondoren, 2021eko apirilaren 11n komunikabideetan PSE-EEren ohar bat argitaratu zen, eta horren bidez eskatu zuten "*Galdakao*



Oroimena” webgunetik kentzeko ETAko bi kideren izenak. Udalak esan zuen egun berean Aranzadik PSE-EERI erantzun ziola baita ere komunikabideetan, azpimarratuz Eusko Jaurlaritzaren Gogora Institutuaren irizpideak bete zituztela lana egitean, eta une horretatik aurrera, komunikabideetan polemika handia sortu zela ETAko kide ezagun horiek udalaren memoriaren webgunean agertzen zirelako.

2023ko apirilaren 12an alkateak ohar bat argitaratu zuen bere sare sozialetan, eta haxe azpimarratu zuen:

“Hainbat eskubide urraketan sailkapenak ere agertzen dira web orrian, bi ataletan banatuta: giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu batzuk. Komunikabideetan agertu direnak azken atal honetan daude, zehazki, bortizkeria politikotik eratorritako beste gertakari batzuen sailkapenean, eta horren barruan, espetxe politika eta salbuespenezko legeen aplikazioari dagokien atalean.

Udal honek argi utzi nahi ditu hurrengo alderdiak:

- 1. Herri honetako biktima guztiekiko erabateko begirunea adierazi nahi du Udalak. Inolako salbuespenik gabe eta beraien erabilera politikoa guztiz arbuiatuz. Era berean, Udalak ulertu egiten du biktimek eta ingurukoek sentitzen duten mina, eta hori baretzeko lan egiten jarraituko du.*
- 2. Bizikidetzaren alde eta gizarte hobea eraikitzeko horrelako ekimenak bultzatzea ezinbestekotzat jotzen du Udalak. Udala ez da aditua horrelako dokumentazioa sailkatzen, eta horregatik kontratatu zuen Aranzadi Zientzia Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eta Gogora Institutuak aldarrikatzen dituzten egia, justizia eta erreparazioa irizpideak gauzatu ahal izateko. Bide horretan, beharrezkoa da lehenik herriaren egia integrala ezagutzea.*
- 3. Aranzadi Zientzia Elkartearen lan zientifikoa balioan jarri nahi du Udalak. Beste hainbat herritan aurrera eraman den ekimena da hau, Azpeitian, Tolosan, Erandion edota Hernanin bezala. Lan hauek Eusko Jaurlaritzak, UNESCO edo Euskal Herriko Unibertsitatearen irizpideak jarraituz egiten dira. Eusko Jaurlaritzak azken urteotan egindako txostenen arabera, horrelako proiektuetan funtsezko irizpidea da giza eskubideen urraketan kasu posible guztiak eta motibazio politikoko indarkeriatik eratorritako beste sufrimendu batzuk ikertzea.”*

Alkateak amaitzeko esan zuen *“Galdakao Oroimena”* webgunea apirilaren 22an itxi zutela Aranzadik hala eskatuta, eta ordutik aurrera ez dagoela eskuragarri.

Gogoetak

1. Ararteko erakundea sortu zenetik, arreta bereziko kolektiboen artean izan ditu terrorismoaren biktimak, EAEn indarkeriaz betetako hamarkaden ostean horrela

izan behar baitzuen, aldi horretan giza eskubide oinarrikoenak larriki urratu baitziren. ETaren indarkeria terrorista 2011n amaitu eta gero, Arartekoak azken urteetan biktimak aitortzen lan egin du, berriz ere biktimizatzea ekidinez eta giza eskubideen nazioarteko ikuspegitik berriro ere ez errepikatzeko eskubidea egikaritzen lagunduz. Horrekin lotuta, Arartekoak ezinbestekotzat jo du terrorismoaren biktimek elkarbizitzaren alde eta partekatutako memoriaren bitartez egiten duten lana, egiaren, justiziaren eta erreparazioaren eskakizunak oso-osorik errespetatuz. Testuinguru horretan, Arartekoak hainbat alditan esku hartu du terrorismoa edo talde terroristetako kideak goresteko edozein saiakera galarazteko eta gaitzesteko.

Horrenbestez, Arartekoak une oro aldeztu du terrorismoaren biktimek duintasunerako eskubidea dutela, eta administrazio publikoei eskatu die terrorismoaren biktimek duintasunerako eskubidearen aurkakoak izan zitezkeen kartelak, monumentuak, pankartak edo omenaldiak kendu eta ez egiteko, eta aurreko guztia hauetan aitortutako duintasunerako eskubidea errespetatzeko: [Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen](#)¹ (euskal legea) 4. b) artikulua eta [Terrorismoaren biktimak aitortzen eta guztiz babesten dituen irailaren 22ko 29/2011 Legearen](#)² 61. artikulua. Arartekoak terrorismoaren biktimek eskubideen bermea eta adierazpen, biltze eta manifestazio askatasunaren oinarriko eskubideen egikaritzearen arteko neurketa egiten du.

Hizpide dugun gaian, Arartekoak egiaztatu du terrorismoaren biktimek bidegabekeria, irain eta umiliazio sentimenduak zituztela EAEko udaletxe batzuen gertuko memoriaren webgune berberean ETako kideak eta ETako biktimak agertzen zirelako. Arartekoak uste du jendearentzat eskuragarri dauden webguneetan hori horrela argitaratzeak urratu egiten dituela terrorismoaren biktimak babesteko legeetan aitortutako eskubideak. Ondoren webgune horietako edukia testuingururik eta informazio teknikorik gabe hedatzean, zalantzarik gabe biktimei sufrimendu handiagoa sorrarazi zien. Arartekoak uste du inolaz ere ez

¹ "Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako: b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimek eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, **jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimek eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gosten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.**"

² Artículo 61. Defensa del honor y la dignidad de las víctimas.

"1. El Estado asume la defensa de la dignidad de las víctimas, estableciendo la prohibición de exhibir públicamente monumentos, escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas o de exaltación o enaltecimiento individual o colectivo del terrorismo, de los terroristas o de las organizaciones terroristas.

2. Las Administraciones Públicas, en el ejercicio de sus competencias, adoptarán las medidas necesarias para dar cumplimiento a esta prohibición. Todo ello sin perjuicio de las actuaciones que las víctimas y sus familiares puedan llevar a cabo en defensa de su derecho al honor y dignidad.

3. Asimismo prevendrán y evitarán la realización de actos efectuados en público que entrañen descrédito, menosprecio o humillación de las víctimas o de sus familiares, exaltación del terrorismo, homenaje o concesión pública de distinciones a los terroristas.

4. Los Delegados del Gobierno en las Comunidades Autónomas velarán por el cumplimiento de la obligación establecida en los apartados anteriores, por parte de las Corporaciones Locales, a los efectos de su reclamación de oficio ante los Tribunales de justicia que sean competentes."



dutela webgune edo hedapen publikoko bestelako bitarteko tekniko berberean agertu behar ETA talde terroristako edo bestelako talde terroristetako kideak terrorismoaren biktimekin batera, nahiz eta atal ezberdinetan edo kategorizazio ezberdinarekin egon giza eskubideen urratzeen larritasunari dagokionez.

Bestalde, Arartekoak badaki, etorkizuneko bizikidetza lortu nahi bada, beharrezkoa dela eta erabilera pedagogikoa duela trantsizio garaitik aurrera EAEn gertatu diren giza eskubideen urratzeak publikoki ikusarazteak, askotariko hedapen euskarrietan, eta hori guztia arrazoi politikoengatiko indarkeriaren testuinguruan, eta indarkeria horrek azken hamarkadetan euskal gizartean izan dituen ondorioak aintzat hartu behar dira. Bestelako sufrimendu-erak daudela ikusaraziz, euskal gizarteko era askotako sentsibilitate politikoak eta sozialak elkarrekin bakean bizitzea sustatu nahi zen, beharrezkoa baita. Hala ere, publikoki sekula ere ez ziren nahasi behar giza eskubideen urratzeen biktimak aitortzen dituzten euskarri tekniko berberetan. Izan ere, horrek lehenaz gaineko sufrimendua dakarkie indarkeriaren bidegabekeria zuzenean nozitu dutenei. Ez da onargarria kasu honetan gertatu den bezala terrorismoaren biktimak berriro ere biktima bihurtzea.

Arartekoak pozarren ikusi du memoriaren webgune horiek berehala desaktibatu zituztela, ez daudela martxan eta ez daudela inolaz ere eskuragarri.

2. Beste alde batetik, alderdi esku-hartzaileekin izandako bileretan eta kasua eta dokumentazioa xehetasunez aztertuta, Arartekoak egiaztatu du "oroimena" udal webguneak publikoki aurkezteko oinarri izan zen prozesua 2011n hasi zela, zenbait udalerritan elkarbizitza mahaiak sortu eta gero. Elkarbizitza mahai horiek elkarrizketarako tokiko komunitate ekimenak ziren, eta bertan batzen ziren udaleko ordezkari politikoak (zinegotziak) eta askotariko biktima eta udalerrri bakoitzeko herritar anonimoak. Mahai horien helburua zen EAEko herrietan elkarbizitza berrezartzen laguntzea, eta horretarako, EAEn sufritutako indarkeria politikoaren askotariko biktimen artean elkarrizketa baketsuak egin ziren espazio seguruetan. Elkarrizketa horietan parte hartu zuten baita ere EAEn indarkeria terroristaren eta politikoaren ondorioz bestelako pairamenak jasan zituztenak, besteak beste zigortutako en gurasoak, seme-alabak eta senideak.

Elkarte eta erraztaile boluntarioek bultzatutako eta udalak babestutako tokiko ekimen horietan EAEko askotariko sentsibilitate politikoetako herritar anonimoek eta udal ordezkariak ere parte hartu zuten, eta Arartekoaren ustez tokiko lan goragarria egin dute elkarbizitzaren alde, eta gertatutakoaren inguruan eta trantsiziotik aurrera EAEn sufritutako indarkeria hamarkaden ondorioen inguruan partekatutako memoria sortzeko kontakizunak sartzeko komunitate ekimen eredugarria da.



Ondorioak

1. Arartekoak egiaztatu du elkarte kexagileak aurkaratu zituen memoriaren webguneak indargabetu egin zirela eta horrela jarraitzen dutela, eta ez dagoela etorkizunean horiek martxan jartzeko asmorik.

2. Aurreko guztia ezarri eta gero, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du haxe azpimarratzea: EAEn trantsiziotik aurrera gertatu den indarkeriaren gaineko gertuko memoriari buruz aritzean, inolaz ere ez dutela hedapen publikoko euskarri berebean agertu behar delituzko jardueragatik kondenatuak izan ziren talde terrorista bateko kideak eta terrorismoaren biktimak. Horrelako euskarriak publikoki zabaldu eta eskuragarri izatearen ondorioz, berriro biktima bihurtzen dira terrorismoaren biktimak, eta beraz, ez da legitimoa, legez kontrakoa da, nahiz eta kasu honetan bezala, biktimarioak webgune bereko beste atal bereizi batean agertu.

3. Arartekoak deitoratu egiten du EAEko herrietako "bizikidetzak mahaiak" udal ekimenak *de facto* gelditu izana.

Horrekin lotuta, Arartekoak agintari publikoei eskatzen die erraztu ditzatela herritarrek eta tokiko ordezkari politikoek beren borondatez eta modu baketsuan EAEko herri eta hirietan indarkeria politikoa sufritu dutenen artean elkarbizitzan aurrera egiteko zubiak eta elkarrizketara espazioak sortzen laguntzeko antolatzen dituzten ekimen komunitarioak. Erakunde honek uste du askotariko sentsibilitateko eta sufrimendu motetako pertsonen arteko kontakizun partekatua bilatzeak ezberdinen arteko elkarrizketaren bidez elkarbizitza baketsua lortzeko eta berriro ez errepikatzeko eskubidearen oinarriak finkatzeko aurrera egiten laguntzen duela.

4. Azkenik, Arartekoak esan nahi du askotariko esku-hartzaileekin izandako bileretan zintzotasuna eta asmo onak ikusi dituela kexa honen hizpide den polemikak kaltetuengan eta euskal herritarrengan sortu dituen askotariko ondorioak entzun eta ulertzeko. Horregatik, elkarrizketa adeitsu eta erreparatzailea egiteko aukerak azter ditzaten eskatzen die Arartekoak esku-hartzaileei, eta giza eskubideak sustatzeko duen eginkizuna betez, bere erakunde-babesa eskaintzen dio elkarrizketa horri, EAEn etorkizunean bakerako eta indarkeriarik ez izateko konpromisoan eta elkarbizitzan laguntzeko.